


Neskek mutilek baino askatasun gutxiago dute gurasoen etxean

[Gazteen Euskal Behatokiak](#) genero-aldeak aztertu ditu gurasoen etxean bizi diren neskek eta mutilek duten askatasuna edo baimenak kontuan hartuz.

Gurasoekin bizi diren 18 eta 24 urte bitarteko gazteen % 8k diote ezin dutela gauzez edozein ordutan heldu etxera, % 13k ezin dutela gaua etxetik kanpo igaro azaldu dute, eta % 48k ezin dutela harreman sexualik izan etxean.

Datu orokor horiek, alabaina, gizon eta emakume gazteen arteko alde handiak estaltzen dituzte: etxera edozein ordutan itzuli ezin diren neska gazteak %11 dira, baina mutilen artean % 6; gaua etxetik kanpo igaro ezin duten neskek % 19 dira, eta gauza bera egin ezin duten mutilek % 8; eta gurasoen etxean harreman sexualak izateari dagokionez, debekatuta daude nesken % 58rentzat eta mutilen % 38rentzat.



Duela hamarkada batzuk 18 eta 24 urte bitarteko gazteen egoera zein zen ez jakin arren, argi dago askatasun maila handia lortu dutela gazteek gurasoen etxean. Hala ere, datuak sexuka aztertuz gero, ikusten da etxean ezarritako arauak ez direla berdinak neskentzat eta mutilentzat, emakume gazteei tratu desberdina eta kontrol handiagoa ezartzen baitzaie.

Azterketa hau egiteko Gazteen Euskal Behatokiak 2013ko azaroan egindako ikerketa batean oinarritu da. Ikerketa horretan Euskadiko gazteen lagin adierazgarria elkarrizketatu zen, baina azterketa honetan gurasoekin bizi diren 18 eta 24 urte bitarteko gazteen erantzunak bakarrik hartu dira kontuan.



Jarrai gaitzazu sare-sozialetan!

